



| | |
|-----------------------------|--|
| Espedientea: | 2024WDI10004 - DIRULAGUNTZA IZENDUNA 15.000 ARTE |
| Sarrera-erregistroa: | 000680 - 2024/02/23 |
| Dekretu-zbaki: | 365/2024 |
| Titularra: | IBARRAKO MERKATARIEN ELKARTEA |
| Ordezkarria: | MIREN ITXASO CALVIÑO MENDIGAIN |
| Gaia: | Internet bidezko erregistroa: 2024.urteko diru laguntza eskaera - Registro por internet: 2024.urteko diru laguntza eskaera |

365/ 2024 ALKATE DEKRETUA

2024ko maiatzaren 10ean Ibarra Udalak 277/2024 Alkate Dekretua ebatzi zuen, non Ibarra merkatarikari elkarteak 10.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea onartzen zuen 1 08.431.00.481.01 2024 aurrekontu partidari egotzita, 2024 ekitaldian ekintzak gauzatzeko.

2024 urtean zehar 25. urteurrenari lotutako jarduerak ere burutuko dituzte, esaterako, maiatzaren 11n burututako kontzertuaren sonorizazio kostua 1.452 euroekin, eta udal honen borondatea da jarduera horien kostuan ere laguntzea.

Ondorioz, Alkate honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikuluan, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24.artikuluan eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41.artikuluan arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Onartzea Ibarra Merkatarikari Elkarteak 11.152 €-ko dirulaguntza ematea, 2024 ekitaldian aurreikusten dituzten ekintzak gauzatzeko.

BIGARRENA. Zenbateko hori 1 08.431.00.481.01 2024 aurrekontu partidatik bideratzea.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

LAUGARRENA. Ebazpen honen berri hurrengo Udalbatzan ematea.

Ibarra, 2024ko ekainaren 14an

Alkatea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDI10004-*Dekretua/*Decreto (IBARRAKO MERKATARIEN ELKARTEA)